

HITZAURRE GISA (II) BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEMUGA

Belen Uranga

Bat aldizkariaren koordinatzailea

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.org

Eskuan duzun ale hau aurrekoarekin batera (76) prestatu eta irakurtzeko diseinaturikoa da. Bi zenbakiok osatzen dute BAT Aldizkariaren XX. urteurrenari eskainitako ospakizun-lantxo hau. Horregatik, aurrekoan esandako hitz batzuk gogora ekarri nahi genituzke:

... Ospakizun urteak aitzakia izan ohi dira egindakoari gain begirada emateko, egungo diagnosiari hurbiltzeko eta etorkizuneko erronken zantzuak lekutzen hasteko. [...] Horrela, aldizkariaren eginkizunari berari erreparatu diogu alde batetik, eta euskararen biziberritze-eta normalizazio-prozesuaren interpretazio anitza eskaini dugu, etorkizuneko erronkak ere plazaratzeko.

Beraz, bi zenbaki hauetan honako ildo nagusiei jarraitzen diete artikuluek: 1) aldizkariaren ibilbideari berari; 2) azken hogeitako euskararen aldeko normalizazio-prozesuaren emaitzen irakurketari; 3) euskararen normalizazioaren esparru edota gai zehatzei zuzenduriko hainbat azterlan edo proposamena, eta 4) Euskal Herritik haragoko hainbat hizkuntza-egoeraren irakurketari. Gainera, Iñaki Larrañagaren ekarpenaren

inguruan idatziriko artikulua bana ere eskaintzen dira bi zenbakiotan, eta 77.ean, duela 500 urte Malon Etxaidek idatziriko gaztelaniaren aldeko manifestuaren inguruan Joseba Intxaustiren artikulua.

Imanol Esnaola aldizkariko koordinatzaile izandakoak arreta berezia jarri du BAT-en izaeran eta bilakaeran. Hasierako garai liskartsuetatik abiatuta egoerari egokitzen joan da halaberharrez, aldizkariaren xede-taldeak dibertsifikatuz eta teknologia berriek ekarritako ohitura-aldaketei egokituz. Hala ere, egiturazko aldaketek eta finantza-zio-moduak zaildu egin diotela dio egileak, berez, izan beharko lukeen komunikazio-egitasmo osoa garatzea. Beraz, oso interesgarria deritzogu hogeitau urte igaro eta gero, aldizkaria beraren izaeraren inguruan hausnarketa indartzeko elementuak mahai gaineratzea. Egin duen proposamena zera da: komunikazio-egitasmo osoak bi alderdi izan beharko lituzke. Lehena, gogoetara eta azterlan jasotara bideratua, BAT aldizkariak beteko lukeena. Bigarrena, esperientzia aplikatuetara bideratu beharko litzateke. Bi alderdi horiek —egileak berak iradokita— ezaugarri desberdinak dituzten

neurrian euskarri, maiztasun eta xede-talde askotarikoak beharko lukete. Gure ustetan, beharrian teorikoek eta komunikazio-arloan gertatzen ari diren aldaketa azkarrek ekar dezakete, agian, gai horren inguruan hartu beharreko erabakiak lehenbailehen hartzea.

Zenbaki honetan **Mikel Zalbidek** izan du azken hogeit hamar urte hauetan soziolinguistika-arloan Euskal Herrian egindako urratsen berri emateko ardura. Ez horrenbeste *azken hogeit hamar urtetako euskararen aldeko normalizazio-prozesuaren emaitzen irakurketari* baizik eta soziolinguistika zientziaren garapenari so egin dio. Alabaina, Mikelek soziolinguistikaz baino gehiago hizkuntza-soziologiaz hitz egin nahi izan du bere artikuluan. [Xabier Leteren heriotzaren berri izan ondoren egindako hausnarketa honetan aitortza sentikorra eskaini nahi izan dio euskalduntasun eta euskaltzaletasunaren izenean hitz eginez. Bihoakio harenarekin batera gurea ere]. Hizkuntza-soziologiaz genion, bere hitzetan, zientziarlaro horrek soziologiatik duelako gehiago linguistikatik baino. Eta hogeit hamar urte hauetan jakintza-arlo horretan, zer adarretan jardun den maizenik euskalgintza, zer esparrutan egin den aurkikuntza baliagarriarik eta zeinetan axal-axalean gelditu den erakutsi du. Horretarako, ordea, lehenagoko garaitara jo du epe bereiziak gogora ekarriz. Horrela, zientzia eta paradigma berriaren inguruan Jose Maria Sánchez Carrión “Txepetx”-en ekarpenak aztertu ditu, hainbat ahulezi ere erakutsiz, ereduaren argi-ilunak eta terminologiaren arazoak ere planteatuz. Ondorengo garaitako ekarpen garrantzizkoak ere gogoratu ditu (SIADeco, Iñaki Larrañaga, Martia Jose Azurmendi e.a.) eta Autonomia Estatutuaren eta Nafarroako Amejoramendu Legearen ondorengo garaitako gorabeherak. Oso interesgarria iruditut zaigu Maria-Jose Azurmendik aurreko zenbakian bezala, terminologia-arazoei Mikel Zalbidek ere ohar garrantzizkoak egin izana. Bistan geratu da, dagoeneko erabiliaren erabiliaz higitutako hainbat ideia eta terminoren arteko lotura unibokoa birkokatzea komeni dela. Azkenik,

epealdi horretan zer irabazi eta zer eginkizun geratu denaren inguruko berri zehatza ere eman du egileak. Ildo horretan, bereziki interesgarri deritzogu *Hausnarketarako Etxea* (*Clearing House – Argiune etxea*) dei dakiokkeen balizko egitasmoaren ideia; oinarritzko zailtasunak erakutsi arren, alboratu ezin den proiektu modura hartu dugu, guk behintzat.

Euskararen normalizazio-bidearen irakurketa analitikoa egin du **Miquel Gros i Lladósek**. Munduko hizkuntza-aniztasunaren artean euskararen biziberritzea —bere zailtasun guztia kontuan hartu arren— munduan arrakastatsuenetakoa dela adierazten du artikulugileak. Euskararen atzerapen historikoaren hainbat eragilerengan jartzen du abiapuntua egileak, ondoren, XIX. eta XX. mendeetan gertaturiko atzeratzearen azkartze-prozesua gogora ekarriz. Estatu espainiarreko hainbat datu demolinguistiko eta geolinguistiko interesgarri azaldu eta gero, Hego Euskal Herriko diktaduraren ondorengo egoera *Reversing Language Shift*-aren abiapuntu modura aztertzen du. Zer egoeratan zegoen euskara EAEn eta Nafarroan 1981an eta 1986an hurrenez hurren? 1981. urtetik abiatuta, 2001. urtekoa erkatzen du *Reversing Language Shift* ikuspegitik, argazki erabat desberdinak ateraz, jakina, EAeri eta Nafarroari dagokienean. Garai beretik abia-

tuta bretoieraren garapenaren alderaketa interesgarria egiten du Miquel Gros-ek; interesgarria iruditu zaigu, zinez, aldeak alde, Europako bi hizkuntza-komunitate hauen hainbat ezaugarri komun hartuta egin duen interpretazioa.

Nekane Larrañagaren ustez eleaniztasunaren kudeaketa egokia da benetako erronka euskarak bizirauteko asmoan. Munduko hizkuntza-dibertsitatea planetaren dibertsitate biologikoarekin parekatu daitekeen altxorra izanik, euskara galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen zerrendatik ateratzeko aukera bakarra hor dagoela iritzi dio. Arrisku-egoera hori azaltzen duten hainbat gai lantzen ditu artikuluan, esate baterako, eguneroko gizarte-bizitzan, euskarak gaztelaniaren nagusitasuna aurrez aurre izatea, nazioarteko beste hizkuntza indartsuekin batera bizi beharra, eta teknologia berrien aro globalizatua. Abiapuntutzat hartu du gaur egungo elkarbizitza zailtzen dituzten hainbat aldagai: prentsa idatzian ageri diren euskarari buruzko hizpideak, prentsa eta gaztetxoaren iritzien alderaketa, euskararen eztabaida publikoan ageri diren subjektuak, helburuak eta bitartekoak, politizazioa edota askatasunaren auzia.

Legediari buruz Administrazio nagusiek garatu dituzten hizkuntza-politika orokorrak aztertu ditu bere aldetik **Igor Astibiak**, eta ondorioak ateratu: bere iritziz, hizkuntza-politika horiekin euskara ez da normalizatuko. Arazoa da abian dauden hizkuntza-politikek ez dutela Euskal Herriko herritar guztientzat beren eguneroko eta mota guztietako jardunean ohiko eta lehentasunezko hizkuntza euskara izatea ekarriko. Ez hori bakarrik, Astibiaren esanetan, azken hiru hamarkadatan eman diren aurrerapausoen eragile nagusia herritarrak eta euskalgintza izan dira, eta ez Administrazioa. Ondorioz, ezinbestekoa deritzo Administrazio nagusiek hizkuntza-politika berria abiatzea, eta, horretarako, gizarteak zuzenean eragitea komeni da.

“Euskararen balioak eta gazteen erabilera: heldu erdaldunen pertzepzioak” du izenburua **Estibaliz Amorrortuk eta Ane Ortegak** sinaturiko

ko artikulua. Bertan, heldu ez-euskaldunen jarrera, uste eta pertzepzioak aztertu dira euskarari ematen dioten balio instrumental edota integratzailea aztertuz. Azken honekin lotuta, *bi munduko egoeran bizi* dimentsioa proposatu dute egileek, hiztun horien jarrerak azaltzeko. Gainera, *bi munduko egoeran bizi* diren erdaldunek duten gazteen erabilarekiko pertzepzioen berri ere eman dute. Horretarako, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* izeneko ikerketa-lanetik hartutako emaitza kualitatibo eta kuantitatibo batzuk aurkeztu dira.

Herrialde Katalanetako egoera soziolinguistikoa balantzea egin du **Ernest Querol-ek**. Baina honakoan *balantzeak egiteko moduen balantzea* eskaini nahi izan du, horretarako, behatzailen lana aztertuz. Datuak nola biltzen diren eta diskurtsoak nola antolatzen diren erakutsi du, batez ere, etorkizunari lotuta daudenak. Katalana hitz egiten den lurralde guztietako egoeraren ikuspegi orokor bat eskaini du, batez ere, Kataluniari dagokionean, hamarkada baten perspektiba konparatibo baten bitartez. Elkar elikatzen duten aldagaietan gehiago sakondu du datu zehazetan baino, esate baterako, emaitza oso ona eman dion atxikitze nazionalaren aldagaia.

Galizieraren azken 20 urteko bilakaera sozialaz hitz egin du **Xosé Henrique Costas González** irakasleak. Galiziera galiziarren %56aren ohiko hizkuntza izanik ere, hizkuntza-egoera azken 20-30 urteetan kontraesanek beterik garatu da, aldi bereko aurrerapauso eta atzerapenekin. Alde batetik, hiztunak galtzen jarraitzen du eskola gaztelanietze-eragile izaten jarraitzen baitu, eta enpresa-munduan, justizia-arloan eta komunikabideetan bere presentzia oso urria da. Baina, beste alde batetik, kultura-, politika- eta gizarte-arloan asko erabiltzen da. Hala ere, salaketa bat ere jarri du egileak mahai-gainean: duela bi urtez geroztik galizieraren egoera legala pasa den mendeko 80. hamarkadarenera itzuli da Alderdi Popularrak gidatzen duen gobernuak hartutako hainbat erabaki atzerakoiren ondorioz. Ziur asko kontuan hartzeko datua da hori,

Galiziatik kanpo gauden gainerako hizkuntzen lurraldeetan ere.

76. zenbakian egin modura, honetan ere, Iñaki Larrañagaren ekarpenari aipamen berezia egin nahi izan diogu. Lan hori egiteko gonbidapena **Inazio Agirrerri** egin genion, eta berak “Euskal soziolinguistikaren Gentlemana” izenburupean idatziriko artikulua eskaini digu. Bere hitzetan, euskararen normalizazioan makina bat udalerritako egoera soziolinguistikoaren azterketa, programa eta plangintza abian jarri eta burutu zitueenez Larrañagak, Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoaren inguruko ezagutza apartekoa du. Teoria soziolinguistiko orokorretik, soziolinguistika aplikatua bihurtzea, eta gauzatze zehatzetatik teoriarako gogoeta egiten aitzindari izatea aitortzen dio egileak. Nolanahi ere, soziolinguistika aplikatuari egindako ekarpenak ahaztu gabe, azpimarratu nahi du esparru ideologikoan teoria orokorraren baitan zabaldu dituen diskurtso soziolinguistikoak eta argudio-sorta.

Zenbakiari amaiera emateko **Joseba Intxaustik** penintsula iberikoaren corpus plangintzaren historian mugarria den testu bat aztertu du, bere testu-inguru historiko eta soziolinguistikokokatzuz: Pedro Malon Etxaidek XVI. mendean idatzitako gaztelaniaren aldeko “manifestua”. Malon Etxaideren testua latinaren aurkako eta gaztelaniaren aldeko manifestua da, une historiko mugarri batean idatzitakoa. Une historiko mugarri horiek euskarak zergatik ez zituen

aprobetxatu galdetzen du Intxaustik bere artikuluan honetan.

Honaino BAT aldizkariaren XX. urteurrenak eman duen artikuluen bildumaren nondik norakoak. Hizkuntza zehatz baten historian denbora-tarte handia izan ez arren, adabegi-gunean izatearen kontzientzia hartu dugu handik eta hemen-dik aldizkaria egiten dugunok.

Aldizkariaren helburuen artean zegoen normalizazio-bidean tresna laguntzaile izatearena, horretarako azterketak, ikerketak eta azalpenak egin daitezen animatuz eta emaitzak partekatze-ko modua eskainiz. Eginkizun horretan jarraitzeko asmo sendoa aitortu nahi du aldizkariak, horretarako garai berriei egokitzen asmatu beharko duela jakitun izanik ere. Egokitze hori, ziurrenik Esnaolak aipatu —eta beste bide batzuetatik ere jaso dugun— komunikazio-egitasmo orokorraren bidetik joango da: a) garapen teoriko zientifikoaren plataforma izango dena, eta horretarako egungo beharrian nagusiei erantzungo diena, unibertsitateko ezaugarriak kontuan hartuz, besteak beste, eta b) esperientzia aplikatuari eskainitakoa, bere ezaugarri teknikoekin. Nolanahi ere, biek izan beharko lukete lehentasuna iritzi, eztabaida eta esperientziak partekatzeko. BAT aldizkaria eginkizun bikoitz horretan lanean aritzeko asmoa eta nahia plaza-ratu nahi luke XXI. mendearen hasieran ospatu-riko XX. urtemuga honen inguruko lanei amaie-ra emateko.■